


# iruner

181. zenbakia. 2010eko apirila



Mystikal,  
Dibulitoon-en  
film berria



Santiagotarrak  
denboraldi  
berrian  
murgildu dira.



Mikel Garcia kazetari eta idazlea:  
"Bidasoako aniztasuna  
gustatzen zait"

PREST



MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA

ezberdinak gara:  
ikasketak eta lana  
aldi berean egiteko  
aukera...

enpresetan  
praktikak,  
karrera amaierako  
proiektu errealak,  
ikerkuntza...

ZATOZ GURE  
UNIBERTSITATERA!



# ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

## ORDIZIA

APIRILAK 17 larunbata - 11:00

## ARRASATE

APIRILAK 24 larunbata - 11:00

Enpresagintza Fakultatea

## IRUN 2. zikloa

MAIATZAK 6 osteguna - 18:00

## OÑATI

MAIATZAK 13 osteguna - 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

## ESKORIAITZA

APIRILAK 22 osteguna - 18:00

ARETO NAGUSIAN

# Laguntzaileak



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru  
Aldundiko Gizarte eta  
Erakunde  
Harremanetarako  
Departamentuaren  
laguntza jaso du.



Aldizkari honek  
Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailaren  
laguntza jaso du.

**Helbidea:** Salis hiribidea, 21 - behea. 20304  
IRUN. Tel: 943 63 18 78. Faxa: 943 63 18 77  
[irunero@infotxingudi.com](mailto:irunero@infotxingudi.com)  
**Argitaratzailea:** TB S.L.  
**Koordinazioa eta  
maketazioa:** Ana Grijalba.  
**Kolaboratzailea:**

# Aurkibidea

**4.- Lapikoan:** Emakumeak Irunen 1931-92  
lan historikoa

**8.- Aurrez aurre:** Mikel Garcia kazetaria.

**10.- Lapikoan:** Trenbideko espazioaren  
berreskurapena

**12.- Kirolak:** Santiagotarren aurkezpena eta  
Leka Eneako Wu Yitsuanen agurra.

**15.- Gai Nagusia:** *Mystikal*, Dibulitoon-en  
film berria.

## Zuzenketak

Aurreko zenbakiko 16. orrialdean  
Lourdes Peñak, berak esandakoen  
inguruan, argi utzi nahi du:

- Euskal eskola **publiko** bat nahi zutela.
- Eskola batek bidalitako gutunean ez  
zitzaieela esaten haurrak euskaraz esko-  
latzea arduragabekeria zela, baizik eta  
**eratu gabeko eskola** batean matriku-  
latzea arduragabekeria zela.
- Ez zutela tabernetan lan egiten, baizik  
eta **jaietako txosna** batean.

Mikel Asurmendi

**Zuzentzailea:**

Xabier Kerexeta.

**Inprimategia:** Antza

**Tirada:** 3.500 ale

**Lege gordailua:** SS-230-94

**ISSN:** 1134-0606

## OLAIZOLA

## Immobiliaria agentzia

Beraketa kalea, 17  
20302 IRUN

TEL: 943 62 66 84 - Faxa: 943 62 65 85

Posta elektronikoa: [inmolaizola@euskalnet.net](mailto:inmolaizola@euskalnet.net)

API 316

Salmenta

Alokairuak

Promozio berriak

Aholkularitza

# Asko esateko duten emakumeak

*Emakumeak Irunen 1931-1992* izenburuko lanak gure hiriaren historia 38 andrearen testigantzen bidez jasotzen du. 70 urtetik gorako emakumeak elkarrizketatuta, Silvia Loza, Maria Ruiz eta Mertxe Tranche ikertzaileek irun dute parekorik ez duen dokumentu hau.



Lanean parte hartu duten emakumeak, martxoaren 8an Irungo Udaletxean egin zitzaizen omenaldian.

## - Nolatan sortu zen lan hau egiteko proiektua?

Irungo Udaleko Gizarte Ongizate arloak emakume irundarrek ekonomiari egin dioten ekarpena aztertu nahi zuen. EHUrekin harreman-

tan jarri ziren, eta niri Unibertsitatetik hots egin zidaten, EHUK jarritako beste bi antropologo eta historialarirekin batera lana burutu nezan. Jomuga liburu bat argitaratzea zen arren, krisia tarteko, oraingoz elkarrizketak ikus-entzunezko formatuan biltzera mugatu

gara.

- Ba al du lanak alderdi berritzailerik?

Hain zuzen, elkarrizketetan oinarririk dagoela. Emakumeek euren bizitza kontatzen dute, eta ekonomiari egindako ekarpena.

- Zer nolako soslaiak aukeratu zenituzten?

70 urtetik gorakoak izan behar zuten, II. Errepublikatik aduana-agentzien itxiera arteko aldia jorratu nahi genuelako. Halaber, sektore ekonomikoak aintzat hartu ditugu: sektore bakoitzak ekonomian zuen pisuaren arabera, koa izan da emakumeen proportzioa ere. Esate baterako, industriak baserriak baino garrantzi handiagoa zuenez, bada, fabriketako langile gehiago bilatu ditugu.

- Zailtasunik eduki duzue nahi zenituzten gisako andreak topatzeko?

Bai, zailtasun dezente izan ditugu, emakumeek garrantzizko ezer ez zutela kontatzeko uste zutelako. Behin baino gehiagotan, bideo kameraz testigantza jasotzera andreen etxera joan, eta esku hutsik bueltatu gara, kontakizunean izenen bat edo pasarte deserosoren bat nahi gabe botako zuten beldur izaten ziren eta. Izan ere, gerra latza izan zen, gero! Bereziki korapilotsua gertatu zaigu emigratu zuten emakumeak aurkitzea.

- Zer dute komunean denek?

Bizitza gogorra eta gerrak edo erbesteak eragindako sufrimendua. Bizipen onak ere azaldu dizkigute: gazte garaiko dantzaldiak Alamedan, Txorruan, Estebeneko bileretan...

---

“Emakume hauek bizitza gogorra dute komunean”

---

Oro har, gaztaro zorionsua igaro zuten. Era berean, aipagarriak dira duintasun handia, sakrifizio izpiritua eta, ikasketak egiteko aukera ezagatik, pena.

- Gerra Zibilak utzitako gorrotoa, beldurra edo mendeku nahia oraindik ez dira erabat ezabatu?

Ez. Oraindik ere bada bere familia zein bandotakoa zen adieraztea kostatzen zaion emakumeren bat. Datu hori ematea irabazleen aldeko ei egiten zitzairen zailago. Testuinguruaren bidez ondorioztatzen genuen.

- Lanean jaso dituzuen testigantzen artean zeintzuk aipatuko zenituzke?

Erbesteratu behar izan zuten emakumeen lekukotasunak bereziki zirraragarriak dira. Askok Franziera alde egin zuten, batzuk egun gutxita-



Porcelanas Bidasoako langileak. *Recetas de porcelana* liburutik hartutako argazkia.

---

“Emakume  
burgesek ez dituzte  
diferentzia  
sozialak ikusten;  
apalenek bai,  
ordea”

---

Irungo muga 1947. urte aldera.  
Argazkia: Roger-Viollet.



rako, baina badira herritik kanpo lau urte eman zituztenak ere. Deigarria da denbora gehien pasa zuten familiak amaren nahiak bultzatuta itzuli zirela, ordurako lana eta bizimodu lasaia erdietsita ere.

Gerra Zibila pairatu ondoren, Mundu Gerrarengatik berriro ihes egin behar zuten batzuek; beste batzuk adoptatuak izan ziren eta gurasoek borrokatu behar izan zuten seme-alabak berreskuratzeko. Hori bai lazarria!

#### - Eta maila sozialen arteko diferentziak islatzen al dira lanean?

Bai. Gerra ostean, Errepublikaren aldeko neskek eskolan jasotzen zuten tratatu txarraz mintzatu dira: gorriak deitzen zieten.

Emakume burgesek ez dituzte diferentzia sozialak ikusten; apalenek bai, ordea, euren larruazalean pairatu zituztelako. Horren erakusle sorta bat: Kolon ibildeko espalo bati “bi errealekoa” deitzen zioten -udaletxe aldera

begira, eskuinekoa-, besteari “pezetakoa”. El Pilar ikastetxean baziren ordaintzen zuten ikasleak eta “dohaineakoak” esaten zitzaizkien. Aguirre gozotegian neska dirudunak baizik ez ziren sar-tzen...

#### - Nolako ekarpena egin zioten Irungo ekonomiari emakumeek?

Fabrika handienetako eskulangileak emakumeak ziren: Elgorriagan eta Poxpolo fabrikan, adibidez. Palmeran, gutxiago; halere, kopurua handia zen. Berebiziko ekarpena kotizatzen ez bazuten ere, etxe bat aurrera ateratzeko ezinbestekoa izaten zen: errazionamenduaren ilarran egon, estraperloan aritu, etxean apopiloak eduki, etxeak garbitzen lan egin...

#### - Zein ondorio ateratu duzue?

Eskerrak lana egin dugun! Guztiz onuragarria izango li-tzateke aurrera jarraitzea, elkarrizketa gehiago eginez.

# Tiempo Unión



**Astelehenetan,  
21:30ean, Gipuzkoa  
Telebista Txingudin.**

Asteartetan, 16:00etan,  
errepikapena

**Aurkezlea:  
Manolo Fraile.**

Aurten primerako futbol profesionala ikusterik izango dugu Stadium Galen.

Gure klubaren inguruko gaurkotasun guztiaren berri emateko, Gipuzkoa TelebistaTxingudik Real Union hizpide duen programa berezia prestatzen du astelehenero. Baina informazioa hedatzeaz gain, Tiempo Unión programan taldeari ezinbesteko duen bere herriaren adorea ere ematen zaio.

**Ez galdu!!**



Mikel Garcia Idiakez, kazetaria

## “Kazetaria baino ez naiz, bidaiaria izatea lortuko ahal dut!”

Mikel Garcia (Irun, 1980) *Argia*-n ari da. XIX. Rikardo Arregi Kazetari Berria Saria irabazia. 2008ko Gabriel Aresti saria irabazi zuen *Bi bizitza eta erdi ipuinarekin*. 2010eko Tene Mujika beka sariari esker, “Euskal Herriko zinemagintza aztertuko duen lana” idazten ari da. *Etorkizuneko kazetari idazle zinegile irundarra* izendatu dugu jada.



- Zer da gehien atsegin zaizuna Bidasoan? Zer gutxien?

Gure mikrokosmosean, Bidasoak eskualde gisa eskaintzen duen aniztasuna gustatzen zait: Hendaia, Hondarribia eta Irun izaera oso desber-

dineko herriak dira, eta aberatsa da hori. Lasaitasun, taberna, kultur eskaintza, itsaso, mendi... bila bazabiltza, batean edo bestean aurki ditzakezulako, eta errealitate desberdinetan murgiltzeko aukera eskaintzen duelako. Gutxien atsegin dudana? Beharbada, elkarlan



handiagoa egin genezakeela, euskarari, literaturari, musikan, kirolari, gazte mugimenduari... Elkarte baliokideak daudelako hiru herrietan, eta bateratu ahalko lirateke. Hasteko, modu ona litzateke behingoz hiru herriak zeharkatuko dituen bidegorria egitea.

- Kazetaria zara ofizioz, ogibidez eta...

Pasioz. Atsegin dut idaztea, esateko gauza interesgarriak dituztenen bozgorailu izatea, historia erakargarriak kontatzea...

- Profesioa, berriz, nola bizi duzu?

Berdin, zorte handia delako gustuko duzunetik bizitzea.

- Nola ikusten duzu idatzizko

kazetari-tza?

Eguneroko zurrumbiloan, prentsaurrekoetatik, ondo kontrastatu gabeko berrietatik eta homogeneizatu eta globalizatutako eskemetatik jaten duen kazetaritza asko ikusten da, eta langile ugariaren egoera prekarioak ez du laguntzen. Baina profesional asko ere badago, zorionez.

- Kazetaria ez bazina, zer izan nahi zenuke?

Askok gustatzen zait bidaiatzea. Munduan batetik bestera joango nintzateke, gero ezagututakoaren inguruan dokumentalak egiteko... Hori ere kazetaritza da, ezta?

- Zinea da landu duzun arloetako bat

Pixkanaka sartu naiz mundu horretan. Kazetaritzaren barruan arlo asko ukitu ohi ditugu, batzuek besteek baino gehiago erakartzen zaituzte, hortik tiratzen duzu, arreta gehiago eskaintzen diozu erreportajeak eta elkarrizketak aukeratzeko garaian... eta, konturatzerako, harrapatu egin zaitu.

Zer zine mota duzu gustuko?

Zinema beltza atsegin dut, baina ondo kontatuta dagoen pelikula batek hunkitzen zaituenean, generoa da gutxienekoa.

- Euskal Herriko zinemagintzaren

arrastoa aztertuko duen lana lantzen ari zara. Zer moduz zereginetan?

Tira, gestio lana nekeza da eta poliki ari naiz, baina oso gustura, jende oso interesgarria elkarrizketatzeko aukera dudalako: lan handiak egin dituzten zuzendariak, mundu ikuspegi propioa irudi bihurtzeko gai izan direnak.

- Ba al dago euskal zinemarik?

Lehenengo, euskal zinema definitu beharko genuke, eta horretarako *Iruneroko* orri guztiak beharko genituzke, gaiak eman dituen eztabaidak kontuan hartuta. Dena den, euskal zinema emaitza kultural gisa hartuta (industriarik dagoenik ezin dezakegulako esan), ez duarik egin elkarrizketatuko ditudan zinemagileek ekarpen eta urrats garrantzitsuak eman dituztela Euskal Herriko eta euskal zinemak oraindik egiteko daukan bide luzean.

- Gabriel Aresti literatur saria irabazia duzu drogaren inguruan girotutako ipuinari esker. Ezagutu al dituzu lagunen artean holako kasuak?

Ez. Ipuina 80ko hamarkadan kokatua dago batez ere; heroinak Euskal Herrian izan zuen hedapen azkar eta tragikoa du ardatz, eta nire generazioa gerokoagoa da, beste droga mota batzuekin lotuagoa. Hala ere, heroinomanoen buruzko erreportaje baterako ezagutu nituen pertsonen kasuetan oinarritu naiz, haiek kontatutako istorio lazarri eta gogorrek bultzatu ninduten ipuina idaztera.

- Zure C.V.an kazetari idazle zinegilea irakurri ondoren, zer gehitzea gustatuko litzazuke etorkizunean?

C.V.an "kazetari idazle zinegilea" jartzen badu, ez da gutxi! Ni oraingoz kazetaria baino ez naiz... ikusiko dugu. Agian munduko bidaiaria izatea lortuko dut azkenean!

MIKEL ASURMENDI

XIX. mendean eraiki zenetik, trenbideak zeharo baldintzatu du Irungo hirigintza. Hortaz, hiriguneko 53 hektarea hartzen dituen espazioa berrantolatzea Udalaren proiektu estrategiko nagusietako bat da; baina zailtasunak ez dira makalak, bereziki hainbat administrazioen adostasuna eskatzen duelako. Proiektuaren ildo nagusiak diseinatuta, ezinbesteko duen hitzarmena erdieste-ko lanean ari da.

### Helburuak

Trenbidearen espazioak Iruni dakartzion traba urbanistikoak kentzea du xede proiektuak. Halaber, hirigune berri bat eraikitzeko aukera emango luke eta, azkenik, baita abiadura handiko trena, Euskotren eta aldirikoa bidaiarien geltoki intermodal bakar batean biltzeko aukera ere. Hirigintza-aprobetxamenduen bidez, berrikuntza urbanistikoa autofinantzatu egingo litzateke, eta trenbidearen inguruaren transformazioak dakarren kostoa, aldiz, murriztu.

### Trenbidearen inguruko esku-hartzea

Trenbidearen inguruko birmoldaketaren ardatza bidaiarien esparrua eta merkantzia bereiztean datza, bidaiariena hirigunean eta merkantzia Plaiaundin kokatuz. Bidaiarien geltoki intermodala eraikitzea aurreikusten da, hots, trena, autobusa eta autoa bateratuko dituen. Plaiaundin merkantzien inguruko zerbitzuak kokatu ahal izateko, iparreko saihezbidea lurperatu beharko litzateke.

### Esku-hartze urbanistikoa


#### **Errepedeak:**

- Trenbidearen gainetik igarotzeko beste errepede bat, gaur egungo Kolon ibilbideko zubiaren alternatiba.
- San Migel auzoan dagoen Donostia

Orain burdinbideak dauden gune honetan etxeak eraikiko lituzkete

Geltoki berria

Aduana



Donostia hiribide berria

Belaskoeneko hiribide berria

Igarobide berria

# Trenbidearen espazioa


kalea luzatuta, Mendelu eta Soroxarta lotzeko hiribide bilakatzea.

- Aduanatik Elizatxoraino Belaskoenean barna igarotzeko, beste hiribide bat sortuko litzateke.
- Euskotrenen egungo trazatuan, Kolon ibilbidearen azpitik igaroko litzatekeen errepede berria eraiki, iparaldeko saihezbidearekin bat egiteko.



#### **Trenbideen estaltzea eta geltoki berria**

San Migel eta Anaka bitarteko espazioa estaltzea

Burdinbidearen estaltzea      Kolon ibilbideko gaur egungo zubiaren kokalekua



Topoaren ibilbidea



Goian: Euskotrenen gaur egungo ibilbidean kale berria sortzea aurreikusten du proiektuak.

Behean: Ezker aldeko etxeak gaur egun trenbideak dauden tokian eraikiko lituzkete, San Migel eta Anaka artean. Horrek Donostia kalearen luzapena ekarriko luke, trenbidearekin paraleloan agertzen dena.

# azioan, hiri berria

aurreikusten du proiektuak, geltoki intermodala eta, honekin konektaturik, merkataritza eta zerbitzu-gune bat.

## **Etxebizitzak, zerbitzuak eta ekipamenduak**

Hiru eremutan:

- San Migel/Anaka inguruko trenbideetan.
- Aduanan
- Euskotrenen geltokian.

## Datuak

- Bidaiarien geltoki intermodal berria.
- Etxebizitzak: 907.
- Saltokiak/zerbitzuak: 8.715 m<sup>2</sup>.
- Jarduera ekonomiko berritzailea: 41.488 m<sup>2</sup>
- Merkataritza eta hirugarren sektoreko gune intermodala: 50.250 m<sup>2</sup>.
- Ekipamendu pribatua (Unibertsitatea eta beste batzuk): 11.990.
- Garaje plaza kopurua: 2.800
- Espazio publikoa: 30.300 m<sup>2</sup>

# Santiagotarrak



Santiagotarrak kideak Amaia aurkezpenean. Beteranoak falta dira, argazkian sartzen ez zirelako.

Joan den martxoaren 23an Santiagotarrak Kirol Elkarteko kideek berebiziko hitzordua izan zuten Amaia KZn, aurtengo denboraldian lehiatuko diren sekzioen aurkezpena egin baitzuten.

Santiagotarrak kirolarien lagun eta senide anitz bertaratu ziren 2010eko denboraldiaren aurkezpen ofizialaren ekitaldira. Eszenatokira arrauneko sekzioko kideak, ur biziakoak eta ur bareetakoak igo ziren: guztira, ia 200. Argi geratu zen Santiagotarrak, bizi-bizirik dagoen Elkarte delata ez ezik, etengabe hazten ari delata ere: Klubeko bazkideez gain, udako ikastaroetan eta eta aisialdiko jardueretan - Bidasoa ibaiko ibiladiak...- parte hartzen dutenak ere kontuan hartu behar dira.

#### Erronkak

Hitzaldian, Jose Antonio Santano alkatea gure

# rrak, martxan



hirian piraguismoak eta arraunak gero eta zaletu gehiago izateaz poztu zen. Halaber, krisi ekonomikoak Elkarteak ukitu duelako, bereziki animatu nahi izan zituen kide guztiak. Klubeko presidente Javier Martinezek ere krisiaren inguruan adone emateko hitzak esan zituen: “Krisiak kaltetzen gaitu; baina bolada txar hau gaindituko dugu eta indarberrituta aterako gara”. Santiagotarretako babesle guztiei ematen duten laguntza eskertu zien, eta Klubaren erronkak aipatu zituen: “San Migelen, hobekuntzetan murgildurik gaude, bai eta kaietako eta egoitzaren aldameneko dreinatze lanetan ere. Erronken artean, Osinbiribilgo ur bizietako kanala aipatu orduko, erantzun gisa jendearen txaloak jaso zituen presidentek.

## Kluba kopurutan

**Ur biziak:** 54 kide. Zuzendari teknikoa: Esteban Arakama. Entrenatzaileak: Urko Zabaleta, Maria Jimenez, Iñigo Urtizberea, Beñat Estonba eta Juanjo Olazabal.

**Ur bareak:** 62 piraguazale. Entrenatzaileak: Erik Arocena, Pedro Campo eta Maite Dieguez.

**Arrauna:** 56 arraunlari. Entrenatzaileak: Iñaki Zabaleta eta Iñaki Peña.

# *Wu Yitsuan-ek Leka Enea utzi du*

**G**auza jakina zen aurtengoa Wu Yitsuan txinatarrak Leka Enean jokatu zuen azken denboraldia izango zela, Klubarekin hala adostua zuelako. Haatik, Leka Enean 8 urtez jokatu ondoren, Wuk taldea uzteko baimena martxoan eskatu zuen, premiazko arrazoi personal bat tarteko. Horrenbestez, apirilaren 7an Txinara abiatu zen.

Leka Enean bat datoz Wu Yitsuan taldeak sekula izan duen jokalaririk onena izan dela baieztatzean. Taldekideek, zuzendaritza batzordekoek eta zaletuek beti izango dute gogoan, zalantzarik gabe.

Leka Enea play off fasea jokatzeko ari da. Hirugarren egin duenez, egokitzen ahal ziztaion aurkaririk zailenaren kontra jardun beharko du final laurdenetan: San Sebastián de los Reyes-en kontra, hain zuzen.



Wu Yitsuan.

Denboraldian zehar, madrildarrak ez dira iritsi ahal ziren postu onenetara; alabaina, jokalaririk guztiak berreskuratu dituzte, irabaztea zaila gertatuko zaie irundarrei.



F / O / T / O / K / O / P

FOTOKOPIAK KOLORETAN ETA TXURI BELTZEAN, PLANOEN FOTOKOPIAK,  
ENKUADERNAKETAK, PLASTIFIKAZIOAK, ORDENGAILUZKO LANAK,  
KAMISETAK, FAX ZERBITZUA, PAPERDENDA,...

Foruen kalea, 4 - 20302 IRUN

Tel./Fax: 943 63 22 11

E-mail: [fotokop@telefonica.net](mailto:fotokop@telefonica.net)

Irungo Dibulitoon Studiok *Mystikal* film luzea aurkeztuko du hilabete gutxi barru. Lau urte eman ditu Erdi Aroan girotutako fantasia hau gauzaten. Galtzak bete lan egin dute Dibulitoonekoek, batez ere hondo guztiak ordenagailuz sortu behar izan dituztelako. Errealaren elementu bakarra antzezleak izaki, eta puntako teknologia baliatuz, Hollywoodeko pelikulen kutsuko produktua borobildu dute.



# *Mystikal,* Dibulitoon-en fantasia berria



Goian, protagonista, Eldyn (Iban Garate). Eskubian, Fira (Savitri Ceballos). Argazki txikietan: Ambroxius (Ramon Agirre), O'Noh (Pedro)

## Angel Alonso, zuzendaria

### - Hitz gutxitan, zer da *Mystikal*?

Hankasartzea egiten duen azti-mutil baten istorioa da. Konpontzen ez badu, eginda-koak ondorio latzak ekarriko dizkio gizateria osoari. Hortaz, munduaren hondamendia gerta ez dadin, protagonistak bidaia bat egin behar du. Istorio klasikoa da, abentura generokoa, osagai nagusizat fantasia eta pertsonaia mitologikoak dituena.

### - Zinemaren historian antzeztokien %100 digitalak dituzten 8 film berrik ez dira burutu.

### *Mystikal* horietako bat da.

Chromaren erabilera (antzeztokiaren hondoa beste irudiek ordezkatzeari) aspaldi egin da zineman - Supermanetik hasita *Avatar*-era-, baina teknologiaren aurrerapenak lanen akabera oso ona ahalbidetu du. *Mystikalen* erreala den bakarra antzezteak dira; beste guztia ordenagailuz sortua da. Proiektua horrela planteatu zen, 1,5-2 milioi euro bitarteko aurrekontu batekin. Hollywoodeko pelikulen kutsuko bat egin genezakeelako. Sistema tradizionalan errodatu izan bagenu askoz ere garestiagoa zatekeen.

Kontuan hartu, adibidez, *Avatar*-ek 500 milioi kostatu dela. Argi dago etorkizuna ildo honetan jorratuko dela.

### - Asko borrokatu behar izan duzue horrelako produktu bat egin zitekeela konbenzitzeko?

Arazoa da Espainiako ikus-entzunezkoen merkatua oso kontsebatzailea eta tradizionala dela; hortaz, ez ditu produktu berriak bilatzen, oso arrikustua dela deritzolako. Ez dago tradiziozko generozineman. Haatik, ikusleen erantzuna oso ona da: horren lekuko, ikusle gehien izan dituzten munduko 100 filmen





Pedro Arnaez eta Parselid (Agurtzane Intxaurreaga).

artean 80-90 bat genero-koak direla: fantasia, fikzio-zientzia, beldurra, beste garai batean kokatutakoak... Jendeak abenturak bilatzen ditu zinema, baina egia da horiek ekoiztea oso garestia dela.

- EITBrekin batera ekoiztua denez gero, antzezleak euskaldunak dira eta euskaraz errodatu da.

Bai. Hasierako ideia Katalunia eta Andaluziarekin koproduzitzea bazen ere, filma arriskutsua zela eta ez zela, atzera egin zuten.

EITBren baldintzen artean bi horiek zeuden: euskal aktoreekin lan egitea eta jatorrizko bertsioa euskaraz izatea. Dagoeneko nazioarteko merkatuetan eskaintzen ari gara eta, jakina, hainbat hizkuntzatarara itzuliko da.

- Ekoiztea garestia da. Geratzen al da dirurik sustapenerako?

Sustapena puntu ahula da. Produksioak gure kapitala behar duelako, sustapenerako ez dugu ia sosik. Hollywooden, 300 milioi inguruko filma



sustatzeko, beste horrenbeste inbertitzen dute. Hori dela eta, filma estreinatu baino lehen protagonistaren irudia duten kamisetak saltzen dituzte; publizitatea autobus geltokietan ere ikus daiteke, edota filmaren izeneko gailetatxoak aurkitzen ditugu salgai.

- Interneten nolako harrera izan du

Mystikalek?

Dagoeneko badira Amerikan Mystikalen inguruan diharduten web-orri ugari. Halaber, herrialde dezentetatik erosteko proposamenak jaso ditugu; Espainiar Estatuan, ordea, oihartzuna minimoa izan da.

- Errealaren bakarra antzezleak dira. Nola egiten da horrelako filmaketa bat?

Antzezleekin hiru hilabetez jardun genuen lanean. Antzezleak plato batean zeuden, atze aldean errezela bat besterik ez zutela. Ordenagailuz sortutako hondoa da filmean agertuko dena. Antzezleei bitxia egin zitzairen errodajea, hainbat argibide eman behar genien eta: nora begiratu behar zuten adierazi behar zitzairen, erreferentziatza panpinak ematen genizkien, ingurua nolakoa zen deskribatu behar genien...

Bai antzezleei bai ekoizleoi irudimen handia eskatzen



digun produktua da. Horren lekuko, hogeitaz lagunekin 70.000 soldaduko armada lortu dugula, hartara armadura bakarra eta kasko eta ezpata batzuk baliatzera mugatu garelarik.

- Bestelako proiekturen bat lantzen ari zarete Dibulitoon-en?

*Aquatika* izenburuko film luzean ari gara. *Mystikal*

bezala ekoiztua izanagatik, bestelako fantasia mota da. Bestalde, zenbait animazio-sail ere prestatzen ari gara. Horieta bategi *Farmtastic* du izena eta Pixar etxeak egiten dituenaren tankerakoa da. *Basajaun*-en, berriz, *Barrio Sesamo*ko panpinen kutsuko pertsonaiak eta antzezleak nahastu ditugu, ordenagailuz sorturiko atzealdeetan txertatuz.

## Tren berdea meategien alderaino iristen da

Irundarrek eta bisitariek Aiako Harria Parke Naturaleko bazterrak ezagutzea eta disfruta ditzaten, Tren Berdea jarri zen martxan. Martxoaren 28tik aurrera, trenak Irungo hirigunetik Irugurutzeta alderainoko ibilbidea egiten du, non burdinazko minerala erretzeko labeak bisitatzea hurbil daitekeen, gaur egun meategietako esparru hura berreskuratzeko prozesuan dago eta. Zerbitzuak honako hau erdietsi nahi du: bisita dibertigarri bat eskaintzeaz gain, Irunen XX. mendearen hasieran egon zen meagintza jardue-  
ra garrantzitsuaren ikuspegi zabala ematea.

Ekinaldia igande eta jaiegunetan eskainiko da, 10:30, 11:30 eta 13:00etan, eta ordu eta erdiko iraupena izango du. Maiatzaren amaiera arte luzatzea espero da.

Irteera eta itzulera puntua Zabaltza plaza da. Bidaiak aurrez hitzordua hartuta egingo dira, 943-49.02.19 telefonoan edo posta elektronikoz [behemendi@telefonica.net](mailto:behemendi@telefonica.net) helbidean.



## Esleitu da Larreaundiko futbol zelaia eta Puianako hartzaindegia egiteko proiektuen idazketa-lana

Hiri Garapen eta Obretako ordezkari Miguel Angel Paezek iragarri du San Jose Langilea futbol zelaia eta Puianako Hartzaindegia egiteko proiektuetan urrats berriak eman direla. Bi ekipamendu hauen proiektuaren idazketa-lana esleitzean, "Oraindik hasiera-hasierako urratsak dira, baina etorkizunerako ekipamendu hauen errealitatea eta beharra markatzen hasi dira", esan zuen ordezkariak.

San Jose Langilea futbol zelaiaren kasuan, proiektuaren idazketa "GIRDER INGENIEROS, S.L." enpresari esleitu zaio, 49.184 euro-

ko zenbatekoan, eta bi hilabete eta erdiko epea du gauzatzeko. Gogoratu beharra dago hurrengo hilabeteetan, Eguzkitzaldea eremuaren konfigurazio berriaren baitan, bide berri bat ere egingo dela, Erribera kalea eta Santa Elena kalea lotuko dituen, egungo futbol zelaiaren atzetik, Tokiko Inbertsiorako Estatu Planaren bizkar, egin ere. Horrez gainera, ikastetxe berria eraikiko dute, eta ingurua hiritartuko.

Bestalde, Puianako hartzaindegiko proiektuaren idazketa-lana ARKILAINSA, S.L.P. enpresari esleitu zaio, 41.415 eurotan.

# Herri Irratia Noticias Taldean sartu da dagoeneko

Joan den martxoaren 25ean, Gipuzkoako irratigintzan azken 50 urte honetan erreferente den Herri Irratiaren kudeaketa bere gain hartu zuen Noticias Taldeak.



Goian, Loyola Mediaren logotipoa eta Onda Vascako esatari Xabier Lapitz. Behean, Estibalitz Ortiz, J.M. Guibert, Iñaki Alzaga, Xabier Riezu eta Gotzon Muneta.

Enpresa-hitzarmen baten bidez, Noticias Taldeak bere irradi proiektuari bultzada bat eman dio, Onda Vasca eskaintza nagusia izaki. Oraingoz, irradi bakoitzaren frekuentziak nahiz programazioak mantenduko dira, bi marketako produktu nagusiak batzea ahalbidetuko duen eredu koordinatu batean aurrera egin arte. Aurkezpen ekitaldian, alde batetik, Noticias Taldeko kontseilari delegatu Iñaki Alzagak, Onda Vascako kudeatzaile Gotzon Munetak eta zuzendari Estibalitz Ortizek parte hartu zuten. Bestetik, Jesusen Lagundiaren ordezkari Jose Maria Guibert bertaratu zen, baita Xabier Riezu Herri Irratiko arduraduna ere.

## Onda Vasca

Onda Vascak bere ibilbide berria joan den irai-

laren 14an abiarazi zuen, Xabier Lapitz esataria eta haren *Euskadi Hoy* programa irradiaren erreferente izaki. “Errealitatea aldaketarik gabe” goiburu duen hedabide honek egunero 10 orduko programazioa eskaintzen du, astelehenetik ostiralera, kazetari eta kolaboratzaile entzutetsu talde baten eskutik, herrigintza sendotzeko asmoz. Entzuleentzat hurbileko irratia izan zedin jaio zen, gaurkotasunak ematen dituen protagonista guztien lekukotasunak eta Euskadiko errealitatea zabaltzen dituen. Onda Vascak bere lehendabiziko hilabetean 40.000 entzule lortu zituen, CIES neurketa sistemak 2009ko bigarren aldia eman dituen emaitzen arabera.

Noticias Taldearen barne, Onda Vasca eta



Noticias Taldeak Herri Irratiaren jarraipena bermatzen du.



Xabier Lapitz *Euskadi Hoy* saioaren zuzendaria da.

Herri Irratiaz gain, honako egunkariak daude: Deia, Diario de Noticias, Noticias de Gipuzkoa eta Diario de Noticias de Álava.

#### Herri Irratia

Herri Irratia 1961eko otsailaren 11n jaio zen Loiolan, eta dialean 5 frekuentzia erdiesteraino hazi zen: Radio Álava, Herri Irratia Eibar, Herri Irratia Loiola, Herri Irratia Donostia eta Loiola Media Bilbao. Bere historiako zedarr nagusietako bat 1976ko martxoaren 27koa izan zen, 24 orduko irratsaio bat euskara hutsez hedatu zuenean. Hortaz, *24 ordu euska-*

*raz* saioak euskararekiko konpromisoaren lerroa markatu zuen.

Herri Irratiaren historian beste urte aipagarri bat 1993 izan zen, COPE katetik banandu eta 24 orduko programazioa eskaintzen hasi zelako.

Herri Irratiak, bere ibilbidean zehar, kazetari-tzaren alorreko goi mailako hainbat profesional formatu ditu. Herri Irratia Noticias Taldean sartzeak Gipuzkoan duela 50 urte erreferente den hedabide honen jarraipena ziurtatzen du eta Onda Vasca berriaren hazkundera ahalbidetzen du.

Gabiria kalea, 15 - 179  
Katea auzoa - IRUN  
Tel 943 63 16 32 Faxa  
943 63 16 02

↯ SONORIZAZIOA  
- ARGIZTAPENA  
↯ GRABAZIO-ESTUDIOAK  
↯ ERREALIZAZIORAKO  
PLATOAK

↯ BIDEO-ZINEMA-  
PUBLIZITATEA  
↯ BIDEO-PROIEKTAGAILUA  
↯ PANTAILAK

## Adaxka Taldeak euskal folklorearen lagin bat eskaini zuen Amaian

Adaxka Dantza Taldeko haur eta gaztetxoek urtean zehar landutako dantzen lagin bat erakutsi zuten joan den martxoaren 27an Amaia KZan egindako saioan.

Bertara bildu zen jendeak euskal lurralde guztietako folklorea az bi orduz gozatu zuen, 200dik gora dantzariren eskutik.

Euskal dantzak ikasten jarduten duten Txingudi Ikastolako ikasleek osatzen dute Adaxka Taldea. Amaia urteroko ikuskizun nagusiaz gain, tradizioari jarraiki Bidasoan burutzen diren beste zenbait agerralditan ere parte hartzen du.



Arg: Kike Cía.

Adaxkako neska gaztetxoak dantzaldian.

## Irungo Udala Mugikortasun Iraunkorreko Plana lantzen ari da

Hiriko Mugikortasun Iraunkorreko Planaren helburua gure eskura dauzkagun garraio bide guztiak hobetzea eta optimizatzea da. Hartara, egon litezkeen ekimenak eta aukerak bildu eta antolatzeari ekin dio Udalak.

Izan ere, Udalaren aburuz, gero eta beharrezkoagoa da hiritarraren bizi-kalitatea eta mugikortasuna bateratzeko beharra. “Autoa gehiegi erabiltzeak bizi-kalitateari kalte egiten dio, zirkulazioa okerragotzen eta ingurumen eta eneriaren kalitatea murrizten duen heinean”.

Horregatik, Mugikortasun Iraunkorreko Plan

honek hiritarrak hobeto mugiarazteko xedea dauka; gainera, inguruaren eta hiriaren kalitatea hobetzea lortu nahi du.

*Mugi zaitez arrastorik utzi gabe* kanpainako esloganaren bidez, Planaren helburu nagusia helarazi nahi zaio jendeari; alegia, hiria guztiontzako bizitoki egokia izan dadin, hiriko inguruneen kalitatea hobetu beharra dagoela adierazteko beste ekintza bat da.

Bestalde, Mugikortasun Plana lantzeko hiritarren irizia kontuan hartu nahian, Udalak postaz nahiz internetez inkesta bat zabaldu du.

# *Hablando Claro, Gipuzkoa*

## Telebista Txingudiren saio berria



Josetxo Arrieta, Gipuzkoa Telebista Txingudiko platoon.

Joan den martxoan Gipuzkoa Telebista Txingudik saio berri bat abian jarri zuen: *Hablando Claro*, Josetxo Arrietak aurkeztuta.

Programan, ostegunero 21:30ean, Txingudiko hirien gaineko gai interesgarrienak jorratzen dira, hainbat ikuspuntutatik, jorratu ere. Datozen asteotan, besteak beste, egoera ekonomikoa, Hondarribiko aireportua, azpiegiturak, Abiadura Handiko Trena eta Bidasoa eskualdearen egoera izango dira hizpide.

Asteroko hitzorduan, Josetxo Arrietak herriko telebistaren platora lau lagun gonbidatzen ditu, ordubetez aukeratutako gaia aztertu eta hartaz

informatzeko, bai eta haren inguruan eztabai-datzeko ere.

Josetxo Arrietak hainbat urte daramatza Txingudiko herri telebistarekin elkarlanean. Gerardo Garciarekin batera, *La calle* eta ondoren *El país del Bidasoa* saioak egin zituen. Biak formatu berekoak izan ziren: interes handiko gai bat mahaigaineratzen zuten eta haren inguruan informatzen eta ezbaian aritzen ziren adituen parte-hartzearen laguntzaz.

# Gazte baten gogoetak

***Hona gazte baten gogoetak bere diariotik hartuta. Gazteen mundura hurbiltzeko saiakera apala da.***

**Marta naiz, 13 urte ditut.**

Eskolara joateko ordua da; beno, jada ez nago eskolan, DBHn baizik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Derrigorrez eta inolako interesik ez duten hamaika gauza entzutera. Ez omen naiz haurra; orain gazte deitzen naute, nahiz eta haur bat bezala tratatzen jarraitu. ALDAKETA asko bizitzen hasiko omen naiz eta horregatik amak diariotxo hau oparitu dit, nahi dudana idazteko. Egia esan, amaren ideiak ez dira oso onak izaten, ez daki ni nola tratatu; baina idazteak ongi egiten dit, ez dakit norentzat idazten dudana, baina on egiten dit.

Beno, jantzeko eta ispilura begiratzeko unea da. Hau da eguneroko momenturik gogorrena. Zer aurkituko dut? Beste granotxo bat? Titiak nabarrituko zaizkit? Eta ipurdia? Ai! Zer jantziko dut gaur? Egia esan, amak ohe gainean arropa prestatuta ipintzen zidaneko garaia dut gogoan. Ez zuen inporta zer jantzi, ez genuen hori pentsatu beharrik ere. Orain jendeak zer pentsatuko duen ere kontutan hartu behar dut. Ai! Ze lana!

Ispilura so: Ai, ni al naiz hor dagoen hori? Batzuetan gorputz aldaketek zur eta lur uzten naute. Hiletxo berriak aurkitzen ditut

beso azpian edo aluan; gerria zabala ikusten dut; titiak izugarri handitu zaizkidala iruditzen zait batzuetan, eta besteetan zein txikiak diren esaten diot neure buruari. Nola garatuko naiz, nolakoa izango naiz hemendik gutxira?

Asko irakurtzen dut eta alde kritikoa garatu behar dudala esaten diot nire buruari. Gizarte materialista eta kontsumistak estereotipo batzuk bultzatu egiten ditu, emakumezko eta gizonezko eder bat zer den azalduz. Sexu bakoitzaren edertasun eredu ematen digute eta denok halakoak izan nahi dugu, filmetan eta iragarkietan azaltzen diren gizon edo emakume perfektuak. Baina...

**Gizarteak estereotipo horien bidez begiratzera bultzatzen gaitu, haien arabera sentitzen gara eder, edo ez. Baina nik ezetz diot !**

**Pertsona guztiak gara ederrak gure begiekin begiratzen badugu, ez bagara inorekin konparatzen. Nik neure buruari ederra naizela esan behar diot, bakarra eta errepika ezina naizelako. Zein polita, baietz? Ez dut beti sentitzen; baina hori da bidea, gizarte honek ez du irabaziko!**

**Nor da pertsona itsusia? Pertsona guz-**







tiok dugun edertasuna ikusi ezin duena da, nire ustez, itsusia. Norekin konparatzen gara itsusi sentitzen garenean? Estereotipo lortezinekin! Ez, neu ederra naiz, nigandik ikusita gorputz atal guztiak ditut osasuntsu beraz, ederra naiz!

Nire buruari egiten diodan gogoeta hau lagun-du egiten dit. Ni naiz garrantzitsuena, eta baikor bizi behar dut, bizitzan zoriontsu sentituko banaiz.

Beno, azkenean, titiak asko ez nabaritzeko, niki luze bat eta bakeroak jantzi ditut. Um! Niki motz bat jantz nezake, denei nire ipurdi polita

erakusteko; baina ez nago prest oraindik, ez dut objektu desiatu bat izan nahi... ala bai? Bai, besteek ni polita ikustea nahi dut, baina ez dut denek niri begiratzea nahi. Ai! Hau ere ez dut argi.

Eta neskak baldin badira gustuko ditudanak? Bisexualak al gara denok? Zer dut gustuko? Nork piztuko dit desioa? Zer da desioa?

Orain, eskolara etorri den sexologoa dut gogoan. Kotte zuen izena, ze jatorra! Harekin sexualitateaz hitz egitea erraza zen, baina orain ez da batere erraza. Amak lehengoan antisorgailuez hitz egingo genuela esan zidan. Ze ama progrea dudan! Eta berak sexualitateaz gozatuko al du? Ai! Pentsatzeak ere! Sortzen garetik gizaki sexutuak omen gara, eta orain hitz egin behar dugu sexualitateaz?

Kottek masturbazioaz hitz egin zigun. **Gure**

burua ezagutu behar dugu, zer eta nola dugun gustuko, zerk ematen digun plazer. Lehen erlazio sexualak ditugunean mutilak plazerra ematea espero omen dugu, eta gu omen gara haien plazerra. Ezin digu inork plazerra eman guk nahi ez badugu. Gozatzeari ekiten badiogu, gure gorputz osoa da plazer-iturri. Beno, gauean espermentatuko dut, ok Marta, ok.

Jope... eta mutilek, nolako ROL zaila duten, e? Haiek eman behar al digute plazerra?

Beno, diariotxo, utzi behar zaitut egunari aurre egiteko eta, aitak esaten duen bezala, BIZI BIZIA ZORIONTSU ETA ARDURATSU! Ai, aitaxo! Ze erraza den zuretzat! Zuretzat positibo bizitzeak duen garrantzia adierazten diguzu egunero. Zure ondoan erraza da! Beno! Batzuetan gurasoen beharra dut, bananduak egonda ere askotan zuekin egon nahi dut; baina gero eta gutxiago ulertzen didazuela sentitzen dut. Badakit lagundu nahi didazuela, enpatia madarikatu hori erabiltzen saiatzen zarete! Baina ez, ez nauzue nire lagunek bezala ulertzen, ezin duzue. Beti babesteko joera duzue, eta nire bizia da, NIREA! Arduratsua izan behar dut, hori ongi ikasi dut; baina utzi bizitzen, nire erabakiak hartu nahi ditut, nireak!

Beno, banoa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egitera, derrigorrez eta inolako interesik ez duten hamaika gauza ikastera. Eskerrak gero patioa dugun, lagunekin egoteko.

MARTA

Besterik gabe, bizi bizia biziki arduratsu! Eta, aizu, gazte, zure galdera eta gogoetak jasotzeko prest gaude, animatu guri idazten! [kuttun@kuttun.net](mailto:kuttun@kuttun.net)

KUTTUN AHOLKULARITZA  
PSIKOPEDAGOGIKOA.

MAPI URRESTI ORTIZ

Udaberria heldu zaigu, lagun hori. Eki-iparraldeko bizilagunek udaberriari *primadera* deritzote, baita *bedatsa* ere. Kanta dezagun, beraz: “Bedatsean bazterrak berdatzen hasi dire...”.

## Martxoaren 8an

Izenburuari erreparatu ote diozu jada, irakurle!? Martxoaren 8a egin dut atzera. Datorren ele andana emakumearen egun seinalatuan izan nuen ele-melea duzu. Ez ezazue hartu gaizki ele-mele adierazpidea, ez da gutxiesgarria. Kontakizuna, bititako tes-tuinguruan ulertzea nahi dut-eta.

Azken Portu Kiroldegian nintzen. Bat-batean, emakumeak hizpide zituen morroi batekin topo egin nuen. Inguruan bazeuden beste pertsona, lagun edota morroi batzuk ere.

Morroiaren ardaila deigarria zen. *Bedatsako* usainak opa izaten digun sexu grinak jota zegoen laguna. Jota, bai horixe!

Neuronak dantzan zebilzkion, eta, antza –morroiak kontaktzen zuenarengatik–, ez zeukan neuronak norekin partekatzerik. Konpartitzeko zuen emakumeak –berak zioenez– bizkarra emana baitzion oraindik orain, baita traizionatu ere. Ez dituela jada emakumeak ulertzen, zioen.

Ez zait inoren ahotatik entzundako irainak, laidoak eta destainak aipatzea gustatzen. Are gutxiago pertsona hori ezagutzen ez badut. Ez ditut, beraz, halakoxeak iruditu zitzaizkidan pertsona horren espresioak hitzez hitz hona aldatuko. Gera gaitezen “bedatsean bazterrak berdatzen hasi dire” espresioak iradokitzen ahal dizkigun irudiekin eta gogoetekin, goxo-goxo geratu ere.

Ez naiz emakumearen defentsan jalgitzeko



asmoz ere. Kontziente bainaiz emakumearekiko harremanetan gizonok ditugun gabeziek. Emakumeak berak ere gabeziak dituela kontzientea naizelarik. Garena garela ere, Martxoaren 8a ez da pertsonok ditugun gabeziak azpimarratzeko efemeridea, pertsonoi dagozkigun eskubideok aldarrikatzeko eguna baizik. Eta, esan gabe doa, emakumezkoen eskubideak aise murriztagoak dira gizonezkoenak baino.

Harira: morroi haien artean, pentsamenduak traizionatu ninduen: “Zer nahi duzu esatea. Emakumearen iraultza garaia da gurea. Gustatu ez edo, horixe dugu lehenengo mundua deitzen dugun honetan dagoen iraultza bakarra”, esan nuen.

Morroiak harritu samar begiratu zidan, noski. Harrituta baino, nahastuta begiratu zidan: “Nor da *sasi-ilustratu* hau?” pentsatu bide zuen. Alabaina, pentsa, geunden morroien artean ni nintzen *marcianoa*, ez bera. Tira, zena zela, denetarikoeleak, irriak eta imintzioak konpartitu genituen gizonok.

Egun hura kari, neronek neure neuronen artean jarraitzen dut gogoetan: “Tira, iraultzak pertsonon urraketak artatu eta eskubide aukerak orekatzeko izan dira historian... Alabaina”.

Hala ote *baina*!? Beti ageri da baina madarikatua”.

MIKEL ASURMENDI

*Lagun armatua* nobelaren egilea alemaniarra da. Edorta Mataukok itzulia da. Jatorrizko izena *Der bewaffnete Freund* du. Jarraian, labur-zurrean, liburuak iradokitako lerro batzuk dituzu.

## Lagun izoztuen gorazarrean

**L**abur beharrez, istorioaren protagonista gure historia garaikideko lagunak dirakokapena zuk zerorrek, irakurle lagun horrek, deskubrituko duzu liburuak irakurtzean.

*Lagun armatua* izenak Joseba Sarrionandiaren *Lagun izoztua* nobelari aipu egiten dio. Liburuak, hainbat iradokizun eskaintzeaz batera, *Sarriren* nobela berrirakurtzera animatu nau (baita, bidenabar esanda, Mikel Antzak kaleratu berri duen *Ospitalekoak* nobela irakurtzera ere).

Nobelan *mamu* baten antzera dabilen pertsonaia *Sarri* da. *Mamu* ez, baizik eta haragizko pertsonaia dena *Zubieta* da, berriz. *Zubieta* Mikel Albisu da. *Antza* izengoiti-az. *Sarri* eta *Antza* biak ala biak ETako kide historikoak dira. Fikzioan birsortuak, bistan da. *Mamu* hitza erabili dut. Istorioan zabaltzen den *mamu* gisako horrek ematen dio berezko jitea nobelari. Klandestinitatearen xarma eta magia, militante altruisten adorea... Zer ote da bizitzan erreala, baina? Zenbat ote du bizitzan gure imajinarioak eraikia?

*Lagun izoztua* liburuak interesgarriztat joa izan zen. Ordea, eleberria ez zela borobila esan zuen batek baino gehiagok. *Lagun armatua* nobela antzekoa ote den nago. Hots, liburu txukuna, baina ez nobela borobila.

*Lagun armatuaren* emaria eskergarria da,



**Liburua:** *Lagun armatua*  
**Egilea:** Raul Zelik  
**Argitaletxea:** Txalaparta

besteak beste, ez delako euskaldun batek idatzia, ezta espainiar ez frantziar batek ere. Erran nahi baita, neurri eta modu ezberdinetan, gatazkak ukitutako hiru identitate hauetako bat izan dezakeen baten eskutik idatzia. Eskertzekoa da gaia alemaniarrei hurbildu izana, hots.

Nobelako protagonistak, Alexek, Euskal Herriaren independentziaren alde borrokan ari diren militante armatuak deskribatu ditu. ETako militanteen baloreak, bertuteak, kontraesanak eta gabeziak.

Lehen partea luzeegia egin zait. Alemaniar irakurle bati Bilboko eta Euskal Herriko oro har eta Mediterraneo aldeko

deskribapenak kitzikagarriak egin dakizkioke gisa horretara kontatuak; euskal irakurle batentzat, aldiz, deskribapenak erredundanteak izan daitezke.

*Lagun armatua* nobela *Road movie* generoaren ildoan narratuta dago. Genero zinematografiko hori lantzen den film askotan gertatzen den legez, nobela paisaian ainguratua geratu dela iruditu zait. Halaber, ez dela pertsonaiengan behar beste baitaratzen. Areago, nobelari trama ongi bilbatzea eta tentsioa falta zaizkiola.

Ene aburua baino ez da. Gainerakoan, liburu duina iruditu zait.

**MIKEL ASURMENDI**

# kultur agenda

## Apirilaren 25era arte

- Euskadiko Kutxan, M<sup>a</sup> Angeles Sanchezen pintura erakusketa.
- Amaia K-Zn, "Egile-argazkilaritza" izenburuko argazki erakusketa kolektiboa.
- Kabigorriin, Errepublika garaiko prentsari buruzko erakusketa, Nicolas Guerendiain Elkarteak antolatuta.

## Apirilaren 20tik 23ra



- Amaian, 19:30ean, Donostiako Urpeko Zinema Zikloa. Dokumentalen proiektzioa.

## Apirilak 23-24

- Zabaltza plazan, 11:00etatik 20:00etara, Liburu Azoka.

## Apirilak 25

- Amaian, 12:00etan, Irun Hiria Musika Bandaren kontzertua.

## Apirilak 27 - Maiatzak 9

- Euskadiko Kutxan, Toki-Alai ikastetxearen inguruko erakusketa, XXV. urteurrena dela eta.

## Apirilak 30

- Amaia KZn, 20:00etan, Zine Kluba. *Checkpoint* pelikula proiektatuko da.

## Opera

- **Maiatzaren 11n**, Amaian, 19:00etan, *La Sonnambula* operaren proiektzioa.
- **Maiatzaren 15ean eta 16an**, 20:00etan, Belliniren *La Sonnambula* opera, Luis Mariano Lirika Elkarteak antolatuta.



kutxa  
kultur  
zirkuitua

## Apirilak 17

- **Ficobako Iñigo Lavado jatetxean**, 11:00etan, haurrentzako arkitektura tailerra.
- **12:30ean**, Guille Millkiway. (Pop tailerra).

- **Amaia KZn**, 20:00etan, Musikene orkestra (klasikoa).

- **Ficobako aparkalekuan**, 21:00etan, kontzertua (ikus hurrengo orrialdea).



## Apirilak 18

- **Amaia KZn**, 20:00etan, Yllana Teatrok *Hermanos de baile* antzetzuko du.

**Apirilaren 17an eta 18an, Expo Kultur Zirkuitua Ficobako Singular Food jatetxean, 10:00etatik 20:00etara.**

## Irun Irutenen ekintzak

**IRTEERA**

EKAINBERRIRA (Zestoa) apirilaren 24an. Haitzuloa bisitatu ondoren (sarrera doan), bazkaria Zestoaan (12 euro).



13an, 20an eta 27an (ostegunak), 19:00etatik 21:00etara, Kemenen egoitzan. Plazak: 15 lagun. Dohainik.

- SENDABELARRAK.

**TAILERRAK MAIATZEAN**

- ZALDIKETA. Maiatzaren 8an, 10:00etatik 13:00etara, Jaizubian. Plazak: 12 lagun. Dohainik.

- EUSKAL DANTZAK. Maiatzaren 6an,

Maiatzaren 5ean, 12an, 19an eta 26an (asteazkenak), EKT elkartean. Plazak: 15. Dohainik.

Izenematea: 943 63 55 96 (goizez).

mintzalaguna@iruniruten.com

## Ikust- Alaia liburutegiko ekintzak

- **Apirilaren 19an, 19:30ean,** Poesia

Taldea. Javier Sistiagak Shakespeare-ren sonetoak errezitatu-ko ditu musikaz lagunduta.



- **Apirilaren 21ean, 17:30ean,** Ipuin Kontalariak haurrentzat.

- **Apirilaren 22an, 17:00etan,** Carlos de Agustinen mintegia. Carlos Díaz-en *Por respeto al otro*.

- **Apirilaren 26an, 19:00etan,** Libroforum Tailerra. Marguerite Duras-en *El amante*.

- **Apirilaren 27an, 19:00etan,** Irakurketa Kluba. Dulce Chacón-en *La voz dormida*.

- **Apirilaren 28an, 17:30ean,** Ipuin Kontalariak haurrentzat.

- **Apirilaren 29an, 17:00ean,** Carlos de Agustinen mintegia. Juan Benet-en *Otoño en Madrid hacia 1950*.

- **19:30ean,** Ipuin Kontalariak helduentzat.

## Fito &amp; Fitipaldis kontzertuan



FITO & FITIPALDIS,  
Kutxaren Kultur  
Zirkuituaren barruan

Hasierako taldea: La CABRA MECÁNICA

**Eguna:** larunbata, apirilak 17

**Ordua:** 20:15ean.

**Lekua:** Ficoba, Irun

**Sarrera:** 24,50 euro aurretiaz erosiz gero, eta 26 euro leihatillean.

**Orrialde hauetako informazio guztia, zabalago, [www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte) webgunean.**

## Lehiaketak



- **SANMARTZIALETAKO KARTEL** Lehiaketa. Nahi duen orok parte har dezake. Epea: Apirilak 23. Sariak: Irabazleak 1.000 euroko saria jasoko du. 200 euroko akzesit bat ere emango da. Lanak Irungo Udaleko Kultura Arloan aurkeztu behar dira. **AURTEN JEN-DEAK BOTOA EMATEKO AUKERA IZANGO DU.**

- **KONTAKIZUN LABURREN VII.** Lehiaketa. Baldintzak: Gazte-Txartela edukitzea. Gutxienez 125 eta gehienez



Gaztezulo aldizkaria GIBan duzu.

150 hitzeko testuak. Saria: 15 eguneko ingeles ikastaroa. Nora bidali: [gazteria@ej-gv.es](mailto:gazteria@ej-gv.es) helbidera, maiatzaren 15a baino lehen.

- **II. ELKAR IPUIN ETA ILUSTRAZIO LEHIAKETA.** Bi atal: Ipuina ilustratu (4 urtetik 10 urte bitartekoentzat) eta Ilustrazioa

Ipuin Bilakatu (11 eta 16 urte bitartekoentzat). Lanak edozein Elkarr liburudendatan aurkeztu behar dira, maiatzaren 7a baino lehen.



## Lana



## harpidetza



[info@irun.org](mailto:info@irun.org)  
Tel: 943 505 444  
943 505 440

Beka, jardunaldi, ikastaro, lehiaketa edo lanei buruz adi egon nahi baduzu, eska iezaguru, eta astero bidaliko dizugu informazioa zure etxera nahiz posta elektronikora.

IZEN-ABIZENAK. ....  
HELBIDEA. ....  
P.K. .... HERRIA. ....  
POSTA ELEKTRONIKOA. ....

Si quieres estar al día sobre becas, actividades, cursos, concursos y trabajo, pidenoslo y te enviaremos información semanal a tu casa o correo electrónico.



- **AISIALDIKO BEGIRALEEN LAN POLTSA.** Udalekuetan lan egin nahi duzu? Kontsulta itzazu aukerak UDAN TXOKOn.

[www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte)

- **PARKE TEMATIKOREN BATEAN LAN EGIN NAHI?** Terra Mitica, Port Aventura, Isla Magica, Warner... Begira ezazu Gazte Informazioko LAN PILA! atalean.

## Hezkuntza



- **EHUKO UDA IKASTAROAK ETA EUROPAR IKASTAROAK.**  
**Izen-emateak:** Maiatzaren 3tik plazak bukatu arte.  
**Beka eskatzeko epea:** Apirilaren 23ra arte. Aukera askeko kredituak.

- **IRUNEN BIDE HEZKUNTZAKO KLASEAK EMATEKO** pertsona bat behar da. Maiatzean eta ekainean, goizez. Gutxienez maisu-maistra titulua izan behar du, eta EGA.

[nekanecabello76@hotmail.com](mailto:nekanecabello76@hotmail.com) Tel: 669145644



- **BANAKAKO KLASEAK.** Heziketa berezian titulua eta eskarmentua duen irakasleak bere burua esakintzen du LHko 1. mailatik DBHko 2. mailara bitartekoei banakako klaseak emateko. 633 513753

## Zure txokoa



## Auzolandegiak 2010

2010eko deialdia apirilean argitaratuko da eta informazio guztia. [www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte) orrialdean izango duzu.

Oharra: 2010ean, nahitaezko baldintza da gutxienez 18 urte izatea auzolandegia hasten den egunean.

Kontsulta ezazu *Euskadiko Gazteak Lankidetzan* programaren egutegia.



## Nazioarteko txartelak

- Ikasle txartela. > 12 urte
- Aterpekide txartela. > 16 urte
- GO25. 12-24 urte.
- Europar sanitate-txartela.
- Nazioarteko txertoak.
- Gazte-txartela. 14-29 urte.

**INFORMAZIOA:**

[www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte)





**Biltegi eta bulegoak:**

**Txirrita Maleo 4 - 20100 Errenteria**

**Dendak:**

**San Francisco, 15 - 20002 Donostia**

**San Francisco, 24 - 20002 Donostia**

**Duque de Mandas, 45 - 20012 Donostia**

**Isabel II, 15 - 20011 Donostia**

**Plaza Aralar, 1 - 20100 Errenteria**

**Avda.de Ezkiaga, 1A-1B - 20200 Beasain**

**Leizeaga, 3 - 20570 Bergara**

**Salvador Etxeandia, 6 - 20304 Irun**

**Erka Osagai Elektrikoak S.L.**

**c\ Salvador Etxeandia, 6 Behea**

**Tel: 943 62 52 49 Fax: 943 53 73 48**

**20304 Irun**



- Industriako eta etxeko instalazio elektrikoak biltegia.**
- Lanpara erakusketa.**